

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 203/2016 Foru Agindua, abuztuaren 22koa, zeinaren bidez Bernedo udalerriko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoaren aldeko txostena egin da (Navarreteko eraikuntza lerroaren aldaketa)**

Bernedo udalerriko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntuala, Navarreteko eraikuntza lerroa aldatzeari buruzkoa, izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua jarraitu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Bernedoko Udalak, aurtengo ekainaren 6an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailera jo du, aldaketa puntual horren ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedura izapidetzeari ekiteko helburuaz.

Ekainaren 10ean Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskaturik, hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA-Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jauriaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jauriaritzaren Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza	
Eusko Jauriaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Naturaren Arabako Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Bernedoko Udala	
Navarreteko Administrazio Batzarra	
Kanpezuko Kuadrilla	
SEO Bird Life	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	√

Ondoren, jasotako erantzunetan esandakoaren laburpena egin da (Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 15/325 espedientean dago alegazioen edo gogoeten kopia osoa):

URA – Uraren Euskal Agentziak bere txostenean dioenez, Bernedoko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualak ez dauka eragin esanguratsurik bere eskumen edo kudeaketa eremuko arloetan.

Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren arabera, aldaketa puntualak ez die eragiten katalogatutako elementuei eta, beraz, ez dauka eraginik haren esku-men eremuaren ikuspuntutik.

Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, ebaluatutako aldaketa puntualak ez dauka eragin arkeologikorik.

Nekazaritza Zuzendaritzaren Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak jakinarazi duenez, proposatu den aldaketa puntualak ez dio eragiten zonako landa azpiegiturari.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren arabera, aldaketa puntualaren eremuan ez dago kultura ondare katalogatutako elementurik.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintzaren Zuzendaritzak eskatuta, ingurumen txosten estrategiko hau eman du.

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatutako eremu geografikoa. Aztertu diren kokaleku posibleak.

1,1. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa.

Aldaketa puntualaren eremua A-4153 foru errepide ohi eta egungo hiri zeharkalearekin muga egiten duen Navarrete herriaren eremura mugatzen da. Bernedo udalerriko 6. poligonoko 730, 1013, 1030 eta 945 lurzatiei eragiten die.

1.2. Aldaketa puntualaren ezaugarriak

Aldaketa puntual honen bidez egungo arau subsidiarioetan Bernedo udalerriko 6. poligonoko 730, 945, 1030 eta 1031 lurzatietan ezarritako lerrokadurak aldatu nahi dira, eraikinek A-4153 errepide ohiaren ardatzetik izan behar dituzten tarteei dagokienez.

Bernedoko arau subsidiarioak apirilaren 15eko 378/2003 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko. Indarreko arau subsidiarioek ezarri duten tartea edo atzerapena 11 metrokoa da, A-4153 errepidearen ardatzetik neurtuta. Atzerapen hori Errepideen Foru Agindua betez ezarri zen, zeinak gutxieneko atzerapen bat eskatzen baitu auzo saretik eta toki saretik.

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 31ko 538 Erabakiaren bidez, hitzarmen bat onartu zen Arabako Foru Aldundiaren eta Navarreteko Administrazio Batzarraren artean A-4153 foru errepidearen zeharkale zatiaren titulartasuna transferitzeko. Hitzarmen horren bidez, zeharkalea herriko kaleetako bat bihurtu zen eta horren arabera ez da beharrezkoa Errepideen Foru Araua aplikatzea.

Sustatzaileak adierazi duenez, arau subsidiarioek egun ezartzen dituzten lerrokadurek eragin hauek sortzen dituzte Navarreteko lurzatietan eta eragin horien konponbideak aldaketa puntuala zuzitzen du:

— Bernedoko 6. poligonoko 730 katastro lurzattia: 2. bizitegi-lurzoru hiritarraren barruan (SUR-3) hiri-lurzoru finkatu sailkatutako lurzati horretan, bizitegi erabilerako eraikin bat dago. Eraikin horren zati bat 11 metrora baino gutxiagora dago galtzadaren ardatzetik eta, beraz, antolamenduz kanpoko egoeran geratzen da.

— Bernedoko 6. industrialdeko 1031 katastro lurzattia: 4. egikaritze-unitateko (UE 4) lurzati bakarra da, Navarreteko 4. bizitegi-lurzoru hiritar (SUR 4) sailkatua. Lurzati horrentzat arau subsidiarioek 8 metroko tartea ezartzen dute galtzadaren ardatzetik itxitararaino, eta 11 metrokoa galtzadaren ardatzetik eraikuntzetaraino. Sustatzaileak argudiatzen duenez, muga horiek oztopo dira egikaritze-unitate hori garatzeko eta arau subsidiarioek onartzen duen aprobetxamendua gauzatzeko.

— Bernedoko 6. poligonoko 945 eta 1031 katastro lurzatiak: Navarreteko 1. urbanizatzeoko lurzoru egokiaren barruan (SAUR 1) sartuta daude. Lurzati horiek A-4153 errepidearekin egiten

dute muga, eta haien eremu fitxan lurzatiaren itxiturak galtzadaren ardatzetik 8,5 metrora baino gehiagora egon behar duela eta itxituratik eraikineraino atzerapeneko beste 3 m ezartzen dira.

Sustatzaileak ingurumen txosten estrategikoan argudiatzen duenez, galtzadaren ardatzetik eraikin eta lurzatiaren mugetarainoko lerrokadura eta atzerapen horiek gehiegizkoak direla, egun zeharkalea hiriguneko kale bat dela kontuan izanda.

Azaldutako argudioetan oinarrituta, errepideak Navarreten duen zeharkalearen inguruan eraikinen 8 metroko lerrokadura edo atzerapena ezartzea proposatzen da, galtzadaren ardatzetik neurtuta. Zehazki, eta eragindako lurzatiatarako, hauxe proposatu da:

– 6. poligonoko 730 lurzatia: Eredu sekzioa aldatzen da, orain Navarrete herriko kaleetarako 8 metroekin ezartzen denari egokituz. 2 metroko espaloi bat mugatzen da, irisgarritasunari buruzko sektorearen araudiaren arabera eta indarreko araudian ezarritako berdegunea zabaltzen da.

– Bernedoko 6. industrialdeko 1031 katastro lurzatia: eraikinerako 8 metroko atzerapena ezartzen da horretan ere: 3 metro galtzadaren ardatzetik espaloiraino, 2 metroko espaloia (haren muga kokatuko litzateke lurzatiaren itxitura), eta 3 metro lurzatiaren itxituratik eraikineraino. Bestalde, lurzatiaren iparrean 130 m<sup>2</sup>-ko berdegune bat egitea proposatzen da; hala, egungo arau subsidiarioetako lerroko berdegunea lurzatiaren iparraldean pilatzen da.

– Bernedoko 6. poligonoko 945 eta 1030 katastro lurzatiak: horretan ere tarte 8 metrora murriztea proposatzen da.

### 1.3. Aztertutako aukerak

Ingurumen txosten estrategikoaren arabera kontuan hartutako bi aukerak hauek dira:

a) Bernedok 6. poligonoko 730, 1031, 1030 eta 945 lurzatiaren lerrokadurak eta zeharkale eta A-4153 errepide ohiarako atzerapenak egungo arau subsidiarioen araudian ezarritako dauden bezala uztea.

b) Ingurumen ebaluazioaren pean jarritako aldaketa puntualean proposatzen denaren arabera aldatzea.

Ingurumen agirian azaldu denez, egungo atzerapenei eustea ez da egokia hirigintza mailan; izan ere, arau subsidiarioek lurzati horietan onartzen dituzten aprobetxamenduak garatu ahal izateko eragiteaz gain, atzerapen horiek A-4153 zeharkalea foru titulartasuneko zenean ezarri ziren eta horregatik aplikatu behar zen sektorearen araudia eta dagozkion gutxieneko 11 metroko atzerapenak.

Arau subsidiarioak aldatuko ez balira, Bernedoko 6. poligonoko 730 katastro lurzatiak "antolamenduz kanpo" jarraituko luke eta ez litzateke zabalduko indarreko araudiak ezarritako berdegunea. Bestalde, eraikinetarako atzerapenak erregularizatzea eta bateratzea ekidingo litzateke. Halaber, kalkulatu denez, indarreko arau subsidiarioen arabera, lerroko berdeguneen aprobetxamendua 8. aldaketarekin proposatu dena baino zailagoa litzateke.

2. Ebaluazio prozesuaren analisia. Ingurumenaren ezaugarriak eta ingurumen txosten estrategikoak ezarritako neurri zuzentzaile nagusiak.

Aldaketa puntualaren sustatzaileak emandako agiriak aztertuta, ingurumen organo honen aburuz agiri horrek, oro har, behar adinako kalitatea dauka proposatzen den aldaketa puntualaren ingurumen ebaluazio estrategikoa gauzatzeko. Dokumentazio horretan eragin dakioken eremuaren ezaugarriak labur azaltzen dira eta aurreikus daitezkeen ingurumen ondorioak aztertzen.

Aldaketa puntualak aldaketa mugatuak dakartza. Zehazki, Navarreteko hiri eremura mugatzen dira, Bernedoko 6. poligonoko 730, 945, 1030 eta 1031 lurzatiaren, zeharkale eta A-4153 errepide ohiarekin muga egiten duen hiri zona batean, zeinak ez baitauka ingurumen balio

nabarmenik. 730 lurzatian etxebizitza eraikin bat dago, 1031k muga egiten du nekazaritza biltegi batekin eta 945ek eta 1031k nekazaritzan dihardute. Aldaparik gabeko lurra dira eta ez daukate berezko bertoko zuhaixka edo zuhaitz landaretzarik.

Ez zaio eragiten sare hidrografikoari eta ingurunean ez dago hezegune katalogaturik. Halaber, ez dio eragiten katalogatutako ezerein habitati, ez babestutako espazio naturalari. Konektibitate ekologikoari dagokionez, ez zaie eragiten Arabako Lurralde Historikoaren Konektibitate Ekologikorako Estrategiak "Korridore ekologiko" gisa definitutako eremuei eta kalkulatzaren denez, ondorio horietarako, aldaketa puntualak ez du edonola ere eragin esanguratsurik izango.

Halaber, ez zaie eragiten "Presuntzio arkeologiko" gisa definitutako eremuei, ezta historia eta arkitekturako ondarearen elementuei ere.

Paisaiaren ikuspuntutik, nabarmentzekoa da aldaketa puntualaren eremua, nahiz Navarrete herri osoa eta haren ingurunea, "Paisaia bikaina": 5. kode zenbakia "Mendiluzea-Jaundel-Luzaran" gisa dagoela katalogatuta, Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren arabera, zeinak Diputatuen Kontseilaren 2005eko irailaren 829 Erabakiaren bidez onartu baitzen.

Aldaketa puntualaren ondorioz lurzati horietan dauden eraikinak handitu egin litezke eta, horri dagokionez, uste da, Udalak eta hirigintza organo administratiboak hirigintza antolamendua eta araudi arkitektonikoa betez ezarriko dituzten baldintzatzaileak eta zuhertasunak kon-tuan hartuz, ez zaiola eragin paisajistiko garrantzitsurik eragingo Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoak 5. kode zenbakiarekin jasotako paisaia katalogatuari.

Ingurumen agiri estrategikoan adierazi denez, mugak ezarri beharko dira, aldaketa puntua-lean jasotako lurzatietako hirigintza garapenek eragindako obrak egin bitartean sortzen diren zaraten, bibrazioen eta bestelako emisioen ondoriozko inpaktuak minimizatzeke, baina susta-penaren arabera, inpaktu horiek hirigintza arauak aldatu ezean ere sortuko lirerateke. Zehazki, sustatzaileak aurkeztu duen ingurumen agirian neurri hauek adierazi dira:

- Eraikuntza jarduera hori eguneko ordutegian eta lanegunetan baino ez da egingo.
- Makinak eta ibilgailuak ez dira joango orduko 20 kilometrotiko gorako abiaduran Navarreteko hirigune osoan.
- Obrako makinaren homologazio eta IAT txartelak berrikusiko dira, errekontzari, isuriei eta zarata mailei dagokienez, emisioen araudia betetzen dela egiaztatzeke.
- Herritarrak kexatuz gero, kontratugileari zaraten eta bibrazioen emisioen kontrolak egi-teko eta emaitzak Bernedoko Udalari aurkezteko eskatuko zaio. Gomendatutako emisio mailak gaintutuz gero, zuzentzeko neurriak hartuko dira.

Azkenik, esan behar da zuzentzat jo dela ingurumen agiri estrategikoak egiten duen balo-razioa, dioenean aldaketa puntualak Navarreteko berdeguneak handitu eta hobetuko dituela, 200 m<sup>2</sup> inguru "Erabilera eta Jabari Publikoko Espazio Libreen Toki Sistema" gisa gehitzean. Horri dagokionez, esan behar da, herriak duen kokapenagatik (haren ingurunea nagusiki ba-sokoa da, paisaia bikain katalogatua, hain zuzen ere bertako baso mugakideen balio paisajis-tiko handiko ezaugarriengatik), egokia izango dela lehenasunez bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieak erabiltzea aldaketa puntual horren bidez sortzen diren berdegune berriak egokitzeko aurreikusten diren sailetan.

### 3. Aldaketa puntualak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen balioespena.

Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren eremua eta oro har Navarrete herria ez dator bat Natura 2000 Sareko espazioekin ez bestelako espazio natural babestuekin. Ega-Berron ibaia Kontserbazio Bereziaren Eremua (KBE) ia kilometro batera dago herriaren hegoaldean, Kantabriako mendilerroa KBE eta Arabako hegoaldeko mendialdeen HBBE 1,2 kilometrorra dago, hegoaldera haiek ere, eta Izkiko KBE, HBBE eta parke naturala gutxi gorabehera 2 kilometrorra daude iparraldera.

Natura 2000 Sareko espazioak dauden distantzia ikusita eta aldaketa puntualaren ezaugarriak kontuan hartuta, espazio natural babestu horiek eragin esanguratsurik jasango ez dutela uste da.

#### 4. Ondorioak

Bernedo udalerriko planeamenduaren arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualak, Navarreten eraikuntza lerroa aldatzeari buruzkoak, uste denez, ez du ingurumen eragin kaltegarri esanguratsurik sortuko, sustatzaileak ingurumenaren ebaluazio estrategiko erraztuko prozesu honen esparruan emandako dokumentazioan deskribatutako jarduketei jarraitzen badie eta sustatzaileak berak ingurumen txosten estrategikoan ezarritako neurriak hartzen badira.

Aldaketa puntualarekin sortzen diren "Erabilera eta Jabari Publikoko Espazio Libreen Toki Sistema"ko azalera berrien eremuan aurreikusita dauden zuhaitz eta zuhaixka sailak lehentasunez bertako espezieekin egin beharko direla uste da.

Horrengatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bernedo udalerriko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualaren aldeko ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari jarraiki, ingurumeneko txosten estrategikoaren helburua izango da ingurumen erabakia ematea, jarduketa gauzatzeko neurriei eta baldintzei dagokienez erabakigarria izango dena.

Hirugarrena. Ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 22a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*

*AMAIA BARREDO MARTÍN*